



Maddi Zubeldiak artearen aurpegi asko biltzen ditu bere baitan, sortzaile nekaezina baita.

Zuraide ETXEMENDY

infraganti MADDI ZUBELDIA

Elurrez jantzi da Ziburu Maddi Zubeldiarekin elkartu garen egunean, eta itsasoari lotutako lurretan gutxitan ikusten bada maindire zuria, ez da ere usu aurkitzen hainbeste gauza kontatzeko dituen pertsona bat. Irakaslea, kantaria, idazlea eta orain antzerkiaren munduan dabilena. «Oroitzen naizeno» irakurketa antzeztua eskaintzen dabil uneotan.

Oroitzen naizeno". Izenburu hori duen irakurketa antzeztua eskaintzen dabil uneotan Maddi Zubeldia, Bernadette Lurorekin batera, bere amak duen Alzheimerren gaitza ardatz. Antza ez da beldur ematen dion espresioaren diziplinarik. «Pasa naiz nire buruan 'zerga-

tik' egingo dut pentsatzetik, 'zergatik ez' erran eta egitera», aitortu digu bere begi urdinek alaitasuna izpiz marrazten dutela iruditzen zaigun bitartean.

«Idazteko beharra izaten dut, gertatzen zaidana hobeto ulertzeko modua baita distantzia batera objektu bat jartzea eta hari hitz egitea; eta amari alzheimerra diagnostikatu ziotenean kolpea izan zen nire-

tzat, egokitu egin behar nuen lehenik, eta etxeko kontuak antolatzea zetorren gero. Baina argi neukan idatzi beharra neukala nire baitan gertatzen zena ulertzeko. Hastapenean monologo bat egitea bururatu zitzaidan, eta banekien zein aktoreri proposatuko nion gainera».

Baina sorkuntza lanetan sarri gertatzen den eran, planak aldatu egin ziren. «Ziburun Je-

an-Philippe Leremboire koreografoak zuzentzen duen Ez-peletenia dago; dantzarien egonaldiak egiten dira bertan. Han eskaintzen diren emanaldietako bat ikustera joan nintzen eta Jean-Philipperi aipatu nion nire monologoaren ideia, eta hara joan nahi nuela idaztera; etxetik bost minutura neukan, eta, etxean idaztea zail gertatzen zaidala kontuan hartuta, plana ezin hobea zen niretzat. Berak baietz, 'egin dezagun', erran zidan, eta horrela hasi nintzen libre neukan denboran hara joaten eta monologoa idazten».

«EZ NUEN INOIZ ANTZEZPENIK EGIN»

Eritasunari aurre egiteko eta zaintza onak izan zitzaizkion, ama zentro berezitu batean ingresatu zuten, baina blokeo moduko bat heldu zen Maddiren idazketa prozesura. «Ez nuen argirik ikusten, eta oihanera ibiltzera joan nintzen batean konponbidea atzeman nuen. Ez zen monologo bat izango, bi pertsona izango ziren, bata emakumea, gaur egun dagoen bezala, eta bestea bere memoria; eta hori argitu zitzaidanetik aise joan zen idazketa. Jean-Philipperi aldaketa aipatu nion eta nik interpretatuko nuela erran zidan berak, bat behintzat ni izango nintzela. Nik ez nuen inoiz antzezpenik egin eta beldurrak azaleratu bazitzaizkidan ere, egonaldi bukaeran behin baizik eskainiko ez zela jakinda, egin egin nuen».

Baina emanaldi haren arrakastak gehiago ekarri zituen ondotik, eskaerak handitu zitzaizkien eta jadanik sei aldiz eskaini dute lana. Abestiekin apaintzen du emankizuna Maddik, berak sortutako bi darabiltza zehazki, hasieran kantatzen duen «Ahaztuko badut»

eta antzezpene bukaeran Agurtzane Anduetza artistak egin-dako marrazki eta irudiekin proiektatzen den «Nire arintasuna». Hona abesti sentikor horren parte bat: «Laurogeita hamar urte diote, ez dut uste, ezin da hainbeste, besotikan helduta, neuk makila hartuta, hola naramate. Hala hobeto dela, nere onerako dela, esaten didate. Umetxoei bezela, esplikatzeko, bestela erori zintezke. Ibiltzen neuk erakatsi nien baina ama nindutela. Orain berriro onartu beharko dut zahartu naizela...».

Zazpi emanaldi gehiago dituzte hitzartuak, Euskal Herriko ipar-ekialdeko lurretan zein hegoaldekoetan. «Amaren herrian, Mendaron, eskainiko dugu emanaldi bat, eta horrek bereziki hunkitzen nau».

IRUNEN LOKARTU, LANDETAN ESNATU

Argazkiak hartzera abiatu eta hizketan jarraitu digu Maddirekin, potretak Ziburuko bere leku maitatu batean egin nahi zituela eta iturri zaharrera eramane gaitu, erdigunean dagoen ur tokira. 1676. urtean egindako obeliskoa du iturriak, pare bat metroko garaierarekin. XX. mendera arte ura handik biltzen zuten herritarrek eta Ziburuko armak ere gordeta eduki omen zituzten han Frantziako Iraultzaren garaian.

Maitasun handia dio Zibururi Maddik, bertan eraiki du bizitza. «Familia gipuzkoarra dut nik, aita Nuarbekoa eta ama Mendarokoa. 1961. urtean sortu nintzen Donostiako ospitalean eta lehen sei urteetan Irunen bizi izan nintzen; oroitzen dut orduko kale giroa eta oroitzapen politak ditut. Baina egun batetik bestera, Irungo etxean lokartu eta Landetako herri batean esnatu nintzen, Mézos izenekoa, oso txikia.

Bat-batean aurkitu nintzen leku ezezagun batean, deus uler-tzen ez nuela, eta trauma bat izan zen hori. Etxe zahar batean bizi ginen, jendarmeria ohia zena, txiste bat ia; hizki batzuk oraindik han zeuden eskegita! Garai hartako giroa triste eta hitsa oroitzen dut. Gu etorkin gisa bizi ginen eta gurasoek zerratokian lan egi-ten zuten, pinua, pinua eta pi-nua, han ez zen besterik. Ge-roztik ezin dut pinurik ikusi!».

Aipatzen duen trauma ho-rrek interesa piztu digu, eta, zaurietan arrakala berriak sor-tzeko intentziorik gabe, espe-rientzia hartaz galdegin diogu. «Ni eskolara bidaltzen nindu-ten eta ez nekien hitz bakar bat ere frantsesez, beraz, ho-rrek haserako zailtasunak are-agotu zizkidan. Nire anaia za-harra ongi bertakotu zen aldiz; hark beste izateko modu bat du, irekiagoa edo, harremanak erraz izan zituen. Ni isilagoa nintzenez, buru-belarri lotu nintzen frantsesa ikastera, ira-kurtzera... Erranen dut irakas-leek gustukoa nindutela!».

Haurrek ez dute etorkizuna hautatzen, ez behintzat bizito-kia izango duten hori, baina toki horretan gertatzen den guztiak eragin bat uzten die. Hori zutabe nagusi izanik, haur batek deserriko lurretan dituen oroitzapenak bilduta osatu zuen bere lehen elebe-rria, “Deserria haurtzaro” izen-buruarekin, berriki aurkeztu duena. «Betidanik maitatu dut idaztea, eta hartan aritu nin-tzen denbora luzez libre ni-tuen tarteak baliatuz. Urteak pasa ditut liburu hau idazten, gainera, erdibidean nengoela idatzitako guztia galdu nuen; gako batean gordeta neukan eta gako hori urtu egin zen, bertako informazioa berresku-ratu ezinik gelditu nintzen.



Negar egin nuen eta doluko hi-labeteak etorri ziren, bazterre-ra utzi nuen kontua... Baina hi-labete batzuk geroago, berriro hasi nintzen idazten. Nire bizi esperientzia du ardatz libu-ruak, haur baten begietatik de-serria kontatzen da, euskaldun familia bat etorkin gisa nola bizi den egokitu zaion tokian. Haur lapurtuen gaiak eztanda egin zuen idazten nenbilen ga-raian, eta nire ahizpa ttipia, gu hiru baikara, Daxen [Akize] sortua da; bada, haraino iris-ten omen zen haur lapurtuen trafikoa. Honela, gu bezalako familia bati horrelako zerbait gertatu zitzaiokeela kontuan hartuz, ba gure istorioarekin lotu nuen gai hori ere, aurrez pentsatutako gaia arrunt alda-tu nuelarik horrela».

Liburuan bere egiazko abize-na agertzen da, Arozena, hala zen bere aita Jose Manuelen aldetik. «Hondarribiko jatorria zuen familia batean sartu nin-tzen ezkontzerakoan, Ziburun errefuxiatu zirenak, Zubeldia-

tarrak, kantuaren eta euskal kultura ororen maitaleak. Ba-da, garaian, Frantziako admi-nistrazioan, senarraren deitu-ra hartu behar zen. Oraingo garaiotatik ikusita izugarria iruditzen zait. Niri izena ere aldatu egin zidaten, Maddi iza-tetik Marie izatera pasa nin-tzen, eta Arozena ordeztu Zubel-dia. Agian orduan ez nion aski garrantzirik eman, nahiz eta baduen noski. Liburua idatzi nuenean Zubeldia-Arozena ja-rri nuen; jatorrikoa ez zen or-dena horretan. baina zerbait bada».

Ziburura bizitzera etortzea-rekin batera hasi ote zen kan-tatzen galdetu diogu Maddiri, lehen diskoan Zubeldia abize-na agertzen baita, bigarrenean bezala. «Gure familian kantua maite genuen. Aita oso bertso-zalea zen, igandetan ‘Zeruko Argia’ irakurtzen genuen elka-rrekin, eta bertsoak kantatzen aritzen ginen. Aitak buruz ze-kizkien asko. Ramuntxo sena-rraren familian kantu herri-

«Amari alzhemerra diagnostikatu ziotenean kolpea izan zen niretzat, egokitu egin behar nuen lehenik. Baina argi neukan idatzi beharra neukala nire baitan gertatzen zena ulertzeko»

«Ni zutik atxiki nauena euskaldun naizela jakitea da, uste dut hori dela ene hezurdura. Nongoa naizen ez nuke jakingo erraten, baina bai nor naizen, zer naizen»

horren guztiaren erdian lanbi-dea du Maddik: irakaslea da Seaskan.

«Landetatik Baionara itzuli ginen, eta ikasketei heldu ge-nien anai-arrebek, nik irakasle izateko bideari ekin nion, eta Angelun egin nituen prakti-kak, Filipe Bidarten gelan. Tira, praktiketan nengoela Filipe desagertu egin zen, eta nik hartu nuen gela eramateko ar-dura. Gero Azkainen jardun nintzen hiru urtez, Hendaian hemezortzi urte pasa ditut, handik Urruñara eta gaur egun Azkainen dihardut be-rriz, zirkulu bat bailitzan. Gai-nera, gauzak zer diren, frantse-seko irakaslea naiz!».

Orotara hogeita hamar urte baino gehiago irakaskuntzan, eta Lapurdiko kostako belau-naldi desberdinak pasa dira bere eskuetatik, horrek biziki ezagun bihurtzen duelarik euskaldunen artean. «Orduko Ziburu oso frantsesa zen. Ene adinkideekin ezin nuen euska-raz hitz egin, hemen ez zen euskarazko eskolarik ere, eta horrek eragin handia zuen gi-zartearen hizkuntza errealita-tean. Gaur egun, gauzak asko aldatu dira, bide horretan egin den lanari esker. Itxaropentsu behatzen diot geroari. Beste-tik, ni zutik atxiki nauena eus-kaldun naizela jakitea da, uste dut hori dela ene hezurdura. Nongoa naizen ez nuke jakin-go erraten, baina bai nor nai-zen, zer naizen, eta hori biziki garrantzitsua dela uste dut». •

koiak errotuta zeuden bestal-de. Nik, gitarra jotzen, hiruz-palau klase hartzeaz aparte, nire kabuz ikasi nuen, olerki formako kantuak idatzia-ki neuzkan eta baita nolabaiteko melodiak ere, etxeko bulego-txoan sartuta ibiltzen nintze-lako erdi gordeka. Unaik eta Nahiak, nire hiru seme-alabe-tako bik, Domeka eta Kamila lehengusuekin musika talde bat sortu zuten, Unama, eta haiek etorri zitzaizkidan nire kantuak moldatu eta jo nahi zituztela esanaz. Diskoa ere atera zuten. Eta, noski, ni bizi-ki harro. Momentu berean ezagutu nituen Azkaineko la-gun batzuk, musikarekin ari-tzen zirenak, Txomin, Xano... Asteburuak elkarrekin pasa-tzen genituen eta haiek ani-matzen ninduten kantatzera, eta baita talde bat osatzera ere. Azkaineko Serresko kapera-ekin genuen lehen kantaldia eta geroztik emanaldi askoren tartean bi disko ere argitaratu ditugu». Eta arte sorkuntza